


DATU OROKORRAK

ISIN:	--
Eraketa-data:	15/06/2009
Komisioak	
Kudeaketa:	%0,45
Gordailuzaintza:	%0,05
Hasierako inbertsioa:	--
Ondarea:	12.001.977,17
Likidazio-balioaren kalkulua:	Egunerokoa
Azken likidazio-balioa:	6,17956

ERRENDIMENDU METATUA



INBERTSIO-POLITIKA

Planak errenta finkoan inbertitzen du ondarearen %100. Errenta finkoko zorroaren iraupena 1 urtetik beherakoa da.

HILEKO IRUZKINA

2026. urtearen hasierak ingurune geoestrategiko konplexua (Venezuela, Iran) eta zentzuzko trakzioa mantentzen duen ingurune ekonomikoa uztartzen ditu, eszenario nagusian aldaketa materialik gabe. NDFk % 3,3ra igo du 2026rako munduko BPGaren aurreikuspena eta % 3,2an mantendu du 2027rako. Inflazioak behera egiten jarraituko duela aurreikusten da, eritmo motelean bada ere, eta AEBren kasuan erresistentzia handiagoz.

Burtsetan igoera orokorra izan da. Europa (+% 2,70), emergenteak(+% 7,46), Japonia (+% 4,55), Erresuma Batua (+% 2,94) eta AEB (% 1,37)

Bestalde, zor publikoaren interes-tasak zertxobait igo dira AEBn eta Europan, berriz, jaitsi egin dira. Bonu korporatiboak % 0,76 igo dira eta errentagarritasun handikoak % 0,70.

Errentagarritasuna PP CL MONETARIO

Hilabete 1	3 hilabete	Urtean	Azken 12 hil.
%0,15	%0,36	%0,15	%1,61

Hileko Bilakaera

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Urtea
2022	%-0,09	%-0,09	%-0,17	%-0,17	%-0,11	%-0,07	%0,21	%-0,50	%-0,63	%-0,03	%0,02	%-0,05	%-1,68
2023	%0,08	%-0,01	%0,28	%0,17	%0,17	%0,10	%0,25	%0,26	%0,08	%0,43	%0,51	%0,68	%3,05
2024	%0,16	%-0,12	%0,30	%0,08	%0,22	%0,31	%0,46	%0,32	%0,40	%0,12	%0,36	%0,16	%2,81
2025	%0,16	%0,20	%0,16	%0,24	%0,11	%0,10	%0,11	%0,11	%0,11	%0,12	%0,12	%0,09	%1,63
2026	%0,15												%0,15

HILEKO MUGIMENDUAK ETA INBERTSIO ERABAKIAK

Urtarrilean epe laburragoko Europako zor publikoaren bonuen interes-tasak zertxobait jaitsi dira. 2 urterako Alemaniako interes-tasa 3 op jaitsi da; Espainiakoa, berriz, 6 op jaitsi da. Planaren iraupena urte batean mantentzen da. Plana % 0,15 igo da hilabeteen.

• POSIZIO NAGUSIAK


2025eko Abenduak 31

Posizio nagusiak	%
BO. ESTADO ESPAÑA 1,5% 270430	24,83
BO. ESTADO ESPAÑA 1,30% 261031	20,56
BO. ESTADO ESPAÑA 1,95% 260430	19,23
BO. ESTADO ESPAÑA 0% 270131	16,15

2026ko Urtarrilak 31

Posizio nagusiak	%
BO. ESTADO ESPAÑA 1,5% 270430	25,11
BO. ESTADO ESPAÑA 1,30% 261031	20,78
BO. ESTADO ESPAÑA 1,95% 260430	19,44
BO. ESTADO ESPAÑA 0% 270131	16,33

• BENCHMARK - ERREFERENTZIAREN INDIZE



• ARRISKU MAILA



Arrisku-maila, CESR/10-673 Europako batasunaren zuzentarauak ezarritakoaren arabera. Fondoak azken bost urteetan izandako likidazio-balioaren asteroko hegazkortasuna oinarri hartuta kalkulatzen da. 1 kategoriak %0,00 eta %0,50 bitarteko hegazkortasun-maila adierazten du

Kontuan hartzeko ratioak

Urteko hegazkortasuna (1)	0,43%
Aurten bueltan	0,15%
Sharpe ratioa (2)	5,89
Urtebeteko VaR 95% (3)	0,80%
Drawdown maximoa (4)	-0,19%

Loturiko arrisku nagusiak:

❑ **MERKATU ARRISKUA:**

Inbertsio-fondoaren likidazio-balioak gorabeherak izan ditzake prezioetan, epe labur, ertain eta luzean, eta partaideari minusbalioak eragiteko moduko hegakortasun handiko egoerak sor ditzake. Fondo misto batean, arriskuak bi aldetatik etor daitezke:

-ERRENTA FINKOA: Merkatuan interes-tasek gora eginez gero, errenta finkoko aktiboen prezioek behera egin dezakete. Muga-egunera arte geratzen den epea zenbat eta handiagoa, prezioaren jaitsierarekiko sentiberatasuna orduan eta handiagoa da.

-ERRENTA ALDAKORRA: Burtsako kotizazioen fluktuazioen ondorioz.

❑ **LIKIDEZIA ARRISKUA:**

Inbertsio-fondoak iraupen mugagabearekin eratzen direnez, inbertsioa desegiteko bi era daude soilik: beste inbertsio-fondo batera intsuldatzea edo errenbultsoa egitea. Fondoaren likidazio-balioa egunero zehazten bada ere, gerta liteke dirua nahi denean ez berreskuratu ahal izatea eta/edo likidazio-balioan zigorra izatea, fondoaren zorroak eta aktiboek, duten ezaugarriengatik eta/edo merkatuaren egoerarengatik, zigorra jaso dutelako saltzerakoan. Likidezia ez dago bermatua. Aparteko momenturen batean, likidezia lortzea murriztua gerta daiteke, inbertitutako kapitala berreskuratzeko aldeztu aurretik jakinarazi beharreko epeak egoteko aukera ere barne delarik.

❑ **KREDITU ARRISKUA:**

Fondoaren kreditu-arriskua edo kontrako alderdiaren arriskua haren inbertsio-politikaren eta aktiboen menpe egongo da: jaulkitzaileak zorrak ez ordaindu ahal izateko edo ordainketetan atzeratzeko arriskua da.

Horretarako, zorroa osatzen duten aktiboak kredituen lehentasun ordenean zer kokapen duten eta zer kreditu-kalitate duten jakin behar da. Kreditu-kalitatea neurtzeko, rating-agentziek egiten duten kalifikazioa hartzen da oinarritzat.

Inbertsio-fondoek ez dute sozietate gestorearen kreditu-arriskurik, ezta sozietate merkaturatzailearenik ere, haien balantzetik kanpo dauden aktiboak dira eta.

❑ **DIBISA ARRISKUA:**

Euroaz bestelako dibisetako aktiboetan egindako inbertsioek dibisa-arriskua deritzon arriskua daukate, kanbio-tasen gorabeheren ondorioz eman daitekeena.

❑ **PALANKA-EFEKTUAREN ARRISKUA:**

Finantza-tresna deribatuetan (gerokoetan, aukeretan...) inbertitzen duten fondoek arrisku handiagoa izan dezakete, produktu horien arriskua dela eta, eta zorroan galerak biderkatzeko aukera izan dezakete.

❑ **BESTE ARRISKU BATZUK:**

Arautu gabeko merkatuetako baloreetan inbertitzeak areagotu egiten du arriskua.

Garatzeko bidean dauden herrialdeetako baloreetan inbertitzen bada, aparteko beste arrisku bat dago tartean: herrialde-arriskua. Herrialde horretako gertaera politiko, ekonomiko eta sozialen ondorioz bertan egin diren inbertsioei eragiteko arriskua da.

● **GLOSARIO**

(1) Urteko hegazkortasuna: Fondoaren likidazio-balioaren eguneroko gorabeheren desbideratze estandarra, urteko terminoetan adierazia.

(2) Sharpe ratioa: Arriskuari doitutako errentagarritasun-neurria ematen du. Arrisku-unitateko lortutako gehiegizko errentagarritasuna zehazten du. Fondoaren errentagarritasunaren ohiko desbideratzearen arabera neurtzen da arriskua.

(3) Urtebeteko VaR % 95: Urtebeteko epean izan litekeen gehieneko galera, % 95eko konfiantza-mailarekin.

(4) Drawdown maximoa: fondoak denboraldi batean izandako likidazio-balioaren jaitsierarik handiena. Hau da, likidazio-balio historiko maximoaren eta ondorengo minimoaren arteko errentagarritasun negatiboa.

Liburuxka honen helburu bakarra informazioa ematea da. Hortaz, ez du ordezkatzen plana kontratatu aurretik legeztatu eman behar dizugun dokumentazioa. Plana kontratatu aurretik, irakurri arretaz araudia, inbertsio-printzipioen deklarazioa eta partaidearentzako funtsezko datuen agiria. Eskura dituzu www.laboralkutxa.eus webgunean eta LABORAL Kutxaren edozein bulegotan. Erakunde gestorea: CAJA LABORAL PENSIONES, G.F.P., S.A. Erakunde gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR, COOP.DE CRÉDITO.



Oficinas de LABORAL Kutxa
(lunes-viernes 08:30 a 14:30)



Telebanca
9 46 46 44 44



Banca On-line



Banca Móvil



Cajeros
LABORAL Kutxa